

# Bero-beroan

ONINTZA IRURETA



Karikiri euskara elkarteak argitaratzen duen *Karrika* buletinetik hartua.

## Pujol, katalanaz “La Vanguardia”n

HIZKUNTZAREN Normalizazioaren Legeak 25 urte bete dituela eta Institut d’Estudis Catalansen emandako hitzaldian, Jordi Pujol Generalitateko presidente ohiak katalanaren egoeraz hainbat hausnarketa egin

zuen. Esate baterako, zine aretoetako filmak katalanez azpigitulatu eta katalanera bikoizteko legea ontzat hartu du, baina esan du asko kostako dela, berak bere garaian muturrak puskatu zituelako hori lortzeko eta ez zuelako lortu.

Katalan hiztunak zirikatatu zituen bide batez. Katalanak ez du arrakas-

ta gehiago katalan hiztunek gutxienekoak mantentzen ez dituztelako, eta esate baterako, jabetxean karta katalanez edo bi eletara eskatzen ez dutelako. Edo katalana hitz egin ez baina ulertzen duten etorkinei ez dietelako katalanez egiten.

## Lazarraga “Jakín”en

170. ZENBAKIAN *Jakín*ek Joan Perez Lazarragakoari buruzko artikulua jaso du, Pruden Gartzia idatzitakoa.

### BAHEA

[Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalari madrildarrak esanak, Youtuben bilduak:](#) “Nazionalismo espainiarra muturrekoena eta baztertzailena da. (...) Antzinako heziketak dio hizkuntza bakarra dagoela, gaztelania, eta gainerakoak bitxikeriak direla”.

[Jon Bilbao Bilboko Udaleko Euskara Sailaren zuzendariak esanak \*Fridan\*:](#) “Gazteak gizartearatzen ari dira, eta eredu sozialak, baita linguistikoak ere, helduek ezartzen dizkiete. Gazte horiek gizartearen plazaren erdira heltzen direnean ikusiko dugu aldaketa, helduok euskararen aldeko baldintzak etengabe lantzen baldin baditugu”.

[Fermin Etxegoienek entzun.com-en:](#) “Betikoa da: media mezu. Euskarak estetika gisa funtzionatu zuen laurogeiko hamarkadan eta aurrerantzean ere funtzionatuko du, euskaldunoi balio baitigu kanpo zein barne munduak adierazteko. Kontua da egungo belaunaldi gazteek hizkuntza molde berriak egokitzeko behar duten tarte honetan erdal musika ere krisi gorrian egotea ez dela gerta dakigukeen gauzarik txarreña”.

### TALAIAN

#### Inkesta xenofoboak?

Europako eta AEBetako herritarren gehiengoak uste du langabezian dauden immigranteek eskatu behar zaiela sorterrira itzultzeko eta toki bakoitzeko gobernuek bide horretan jokatu behar luketela. Hori adierazten du Harris Interactive-k egindako inkesta batek, *Financial Times*-en argitaratua martxoaren 16an. Inkesta horrek dio, gainera, iritzi hori orokorragoa dela italiarren eta britainiarren artean –%80 baino gehiago–, Espainiako, Frantziako, Alemaniako eta Estatu Batuetako herritarren artean baino –%60 eta %70 artean–. Nola egin da inkesta hori eta zer motatako galderak egin dira? Benetan islatzen al du europarrek eta estatubatuarrek pentsatzen dutena? Zer egon daiteke inkesta horien atzean, arrapaladan etorri den krisiaren erdian eginak badira? Zeren bila dabilta inkesta hori ordaindu dutenak?

Ez da gauza bera inkesta egitea ekonomian eta lan arloan egoera normalizatua eta egonkorra dagoenean, edo krisia dagoenean. Krisi eta langabezia egoeratan, lankidearekiko errespetua eta elkartasuna, izan immigrante ala ez, pitzatu egiten dira eta bakoitza bere lanpostua mantentzen saiatzen da ondokoa ahaztuz. Eta are gehiago ondokoa immigrantea bada. Botere publikoek nahiz erakunde sozialek eta internazionalak asko zaindu behar lukete krisi garaian xenofobia ez bultzatzea. Mota honetako inkesten atzean, xenofobia maila bat gordetzen duten arrazoi esan ezinak daude. Ez genuke ahaztu behar immigranteak, ezeren aurretik, pertsonak direla eta bertakoon bizitza eta lan eskubide berberak dituztela. Beren lanak langabezia eta laguntza sozialak jasotzeko eskubidea ematen diete. Aberastasuna eta ongizatea sortu dute eta bertakoon pentsioen mantentzean parte hartzen dute. Beren lanak beharrezkoa izaten jarraituko du.

Juan Mari Arregi

## ENAM eta banaketaren mamua

IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



**BLOKE BURUJABEA** osatzeko ENAMeko ezker abertzaleak egin berri duen eskaintzaren indarra benetan zein den oraindik airean da. Hilaren 16ko talde argazki haren helburua indarra eta batasuna helaraztea zen, zalantza

barik, eta proposamena argazkiraino heldu bada, horrek barne kontsentsu maila bat adierazten du. Pentsa liteke baita ere, gai giltzarri batzuen inguruko adostasun maila lotu barik dagoela oraindik, baina adostutakoak balio duela aterki gisa metaketa soberanistaren ekimenari ekiteko.

Borroka armatuaren desaktibatzea klabea da ekimenaren arrakastarako, hori oso garbi du ildo burujabe zale honen aldeko indarren oso gehiengo zabalak, baita ENAMen barruan ere. Noiz, nola... hori konplexuagoa da, baina berandu baino lehen, bestela jai. Hori da arantzatsuen, baina bestelako oinarri batzuk ere ez dira makalagoak. Esate batera, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen inguruan ez da zalantzarik, baina nola egikaritu behar da berau EAE, Nafarroa eta Iparraldeari dagokienean? Eta soberanista bai, baina nola txertatu behar dira eguneroko jardunean ezkerreko politikak? Zeintzuk dira gaur egun ezkerreko politikaren oinarri horiek?

**ETA LIDERGOAZ ZER?** Argi samar ikusten da lidergo partekatuak behar direla eta ENAMek atzean utzi beharko duela, nazio askapeneko hainbat prozesutan abanguardiek lidergo kontrolatzaileerako izan ohi duten joera historikoa. Lidergoak irabazi egin behar dira, eta une honetan

ENAMeko buruzagitzak ez du behar besteko indar eta karismarik halako mugimendu zabalaren lidergoa bakarrik bideratzeko. Porrotaren hasiera litzateke horretan ondo ez asmatzea eta eskuzabaltasunez ez jokatzera. Bere diskurtso publikoan berraztertu beharko luke bloke horren lidergoaz luzatzen dituen zenbait mezu. Esate baterako, pentsatzekoa da kutsu berriko zerbait behar bada, ELAK -110.00 afiliatu eta %36ko ordezkari-tza sindikala- beste garrantzi bat izan beharko duela prozesu horretan. Eta Batasuna eta Aralarren arteko harremana ere aldatu beharko dela. Eta abertzale ez diren sektore autodeterminazio zaleak ere erakarri beharko direla eta...

**OZTOPO ETA ZALANTZA** gehiegi, gaindiezinak diruditenak sarri, baina borondatez, elkarrizketa luzez eta eskuzabaltasunaz bideratu beharko liratekeenak. Une honetan zalantza eta beldurrik handienetakoa ENAMen baitan dago. Horrexegatik begiratu zaio horren kezka handiz Irlandako bake prozesuari. Eta emandako erantzuna ere oso esanguratsua da: Sinn Feinek egiten duen irakurketarekin bat egin du, zalantzei zirrikiturik utzi barik, eta Euskal Herriko gatazkan ikusmolde bati nagusitasuna emanez: hemen ere bide politikoa -eta beraz armatua ez- nagusitzearen beharraz.

Baina Arnaldo Otegi, Rafa Diez eta gisakoek luzatzen ari diren mezu hauek ez dira ezkontzen ETaren jardunarekin. Eta horrek zailtasunak adierazten ditu. ENAMen baitan seguruenik nagusi dira borroka politiko soilen jardun behar direla dioten ahotsak, baina ez ETAn. Hori da batzuen eta besteen jardueratik irudika daitekeena. Hori da ezker abertzale nagusiak bere barne eztabaida eta hausnarketa prozesuan argitu beharko duena. Balizko banaketak beldur handia eragiten du, baina gehiengo politikoa ezin da makurtu gutxiengo militarrean -beti ere, egoera hori balitz-. Horrek funtziona dezake gutxieneko adostasun politiko batzuk baldin badira, baina ardatza apurtzen bada eta konfiantza bideratzea lortzen ez bada, haustura denbora kontua besterik ez da.

Batetik, egin daitezkeen balorazio on eta txarren ginetik, eztabaidaezina da ENAMek indar politiko handia metatu duela azken hamarkadetan eta oraindik ere giltzarri izan daitekeela Euskal Herriko etorkizun politikoaren norabidea finkatzerakoan. Bestetik, aspergarria da azken aukeraz eta halakoez hitz egitea, baina higadura begi-bistakoa da, maila guztietan gainera.

PSE-PPren jardun bateratuak gogor astinduko du "biolentziaren deslegitimazioaren" aterki zabal hori eta nozituko da. Baina, aldi berean, mugimendu soberanistak aldeko haizea izango du aukera berri bat eraikitzeko. Ez bada gauzatzen aukera horren aldeko indarren errua izango da, ez kontrako eragileena".